2014-I-17 Número **418.** zenbakia





EDITORIALA

Daramatzagun krisialdi bolada luze honetan, era askotako ondorioak nozitu ditugu langileok. Zerbitzu publikoei dagozkien prestazio sozialen eremuan oso larriak izan dira: langabezia prestazioetan murrizketak, pentsioetan, gutxieneko errentakoak, etxebizitzarako laguntzak... Eta zuzen-zuzenean gure lan eremuan lan baldintzen narriadura etengabea jasan dugu, enplegu suntsiketarekin batera. Lan baldintzeieta soldatei espresuki- egin zaion erasoa gupidagabea izan da. Lehiakortasunaren aitzakiaz, enpresetako kostuak murriztu eta etekinak handitzea izan da patronalaren aitortu gabeko argudioa soldatak behera botatzerakoan. Pobrezia areagotzea eta desberdintasunak handitzea ekarri du eraso honek, langabezia tasak igotzearekin batera.

Soldaten aurkako planteamendua posizio politiko eta ideologikoetatik garatzen da geroz eta etekin handiagoak bermatzeko euren poltsikoetan. Gutxiengo batek gehiengoa zapaldu behar du beren interesak babesteko. Eta frogaturik dago soldata baxuagoak pobretzea bakarrik dakartzatela, eta ez ekonomiaren aktibazioa edo lehiakortasuna. Eros ahalmenari eragiten dio, segurantza sozialaren diru-bilketa eta kotizazioari, ogasunen politika propioari eta, finean, prestazio sozialetara bideratu beharreko baliabidea nahikoei ere.

Egoera gogorra da eta inori eza zaio ezkutatu behar horri aurre egiteko indar eta konbentzimendu handiak behar direla. Tokian tokiko mehatxuak enpresatan, kaleratzeak, beldurra sortzea langabeziaren arriskuarekin... dena erabiltzen dute erreibindikazioa saihesteko eta langileak otzandurik izateko. Zorionez, makina langile jarrera honen aurka oldartu da eta duintasun handiz borrokatzen ari da beren eskubideei eusteko. Datozen hilabeteotan sindikatua bere osotasunean gaiari adarretatik heldu eta horretan murgilduko gara, militantzia ere baliabideak izan ditzan borrokari eusteko. Soldatak bermatuz enplegua defendatzen dugu eta hori guk bakarrik bilaka dezakegu egingarri. Gure interesekoa delako.

Lankidetu!

El 22 de enero, el frontón Izarraitz, de Azpeitia, será el escenario de una acto confederal sobre negociación colectiva y acción sindical

SALARIOS Y EMPLEO, NUESTRAS PRIORIDADES

22 de enero, el frontón Izarraitz –Azpeitia– será el escenario elegido para la celebración de un acto confederal sobre negociación colectiva y acción sindical, bajo el lema general de Salarios y empleo, nuestras prioridades. En el acto tomarán parte más de un millar de delegados y delegadas del sindicato. Posteriormente, una manifestación recorrerá las principales calles de la localidad. El sindicato se vuelca de esta manera en una comarca, la de Urola-Kosta, especialmente castigada en los últimos meses por los cierres de empresas y en la que se están llevando a cabo importantes luchas sindicales.

La jornada tendrá tres partes bien diferenciadas. En la primera de ellas, centrada en la negociación colectiva y la importancia que tienen los salarios en el mantenimiento del empleo, **Joseba Villarreal** realizará un somero análisis de la coyuntura actual y explicará qué está ocurriendo en estos momentos en las empresas de Hego Euskal Herria, la postura cerrada y de recortes que están adoptando las distintas patronales, privadas y públicas, y la estrategia de ELA para intentar plantar cara empresa a empresa y sector a sector. El responsable de negociación colectiva insistirá en la importancia de no aceptar los intentos de chantaje de la patronal y no aceptar recortes salariales ni de empleo. En este sentido, insistirá en la idea de que a pesar de la coyuntura es posible defender los salarios y el empleo, y delegados de empresas y sectores que



han protagonizado recientemente luchas sindicales en este sentido explicarán el desarrollo de las mismas a las y los asistentes. En este sentido, está previsto, asimismo, que Joseba Villarreal anuncie la puesta en marcha de una campaña de negociación colectiva bajo esos dos ejes principales: la defensa de los salarios y el empleo.

Sigue en la página 2

EAE-n aurrera jarraitzen du Legegintzako Herri-Ekimenaren kanpainak; Nafarroan prozedura zehaztea falta da ekimena martxan jartzeko

SINADURAZ SINADURA AURRERA

Argitaratzen diren baldintza-orri guztietan gizarte-klausulak legez jasotzea exijitzen duen Legegintzako Herri-Ekimenaren sinadura bilketak lehen hilabetea bete du Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroan, berriz, egoera ezberdina da. Iragan azaroaren 12an Parlamentuak ekimenaren tramitazioaren hasiera onartu zuen, baina oraindik azken oniritzia falta da sinadura bilketa hasteko.

Oraindik ia hiru hilabete falta dira sinadurak jasotzeko epea amaitzeko, eta ELAk oso irakurketa positiboa egiten du orain arte egindako ibilbideaz. Dagoeneko milaka dira euren babesa adierazi duten herritarrak. Gogorarazi beharra dago 30.000 sinadura behar direla Legegintzako Herri-Ekimena Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu ahal izateko, baina gure sindikatuaren asmoa kopuru horretatik harantzago doa.

ELA-Zerbitzuak federazioko idazkari nagusi Mirari Irurek azpimarratzen duenez, "100.000 sinaduretara heltzeko helburua hor jarraitzen du. Gainera, sinadurez gain, azpikontratetako langileen arazo larria ahalik eta gehien zabaldu nahi dugu. Horregatik, lehen eta gutxieneko helburua 30.000 sinadura lortzea den arren, ez gara kopuru horrekin konformatuko. Eta, zorionez, harro esan dezakegu aldez aurretik egindako iragarpen eta helburu guztiak betetzen ari garela. Gure jendea lan bikaina egiten ari da, bai lan-munduan eta bai gizarte osoan ere".







ÁREA DE DESEMPLEADOS/AS DE ELA

El acto de Azpeitia servirá también de oportunidad para explicar en profundidad los primeros pasos dados por el Área de Desempleados/as de ELA, cuya creación fue aprobada en el último congreso confe-

Su responsable, Leire Txakartegi, explicará la difícil situación que atraviesan los parados y paradas, la mayoría de los cuales no tienen ningún tipo de cobertura, así como los objetivos y metodología de trabajo a seguir en este área. Por su parte, Mikel Noval, responsable de estudios del sindicato, desgranará las propuestas de ELA para crear empleo de calidad.

RETOS AMBICIOSOS

Como colofón, el secretario general del sindicato, Adolfo Muñoz Txiki, será el encargado de poner el punto final a ese acto formativo-reivindicatvo con un análisis de coyuntura y un repaso de los retos que tiene marcado el sindicato ante la misma. Txiki volverá a insistir en la necesidad de organizar y sindicalizar las empresas como única manera de defender los derechos laborales.

Tras el acto, una manifestación recorrerá las principales calles de Azpeitia hasta concluir en la plaza mayor de esta localidad guipuzcoana.

egociación Colectiva

ELA critica la creación de la comisión vasca de inaplicación de los convenios y sus reglas de actuación

OPORTUNIDAD PERDIDA



que defendíamos la no creación de esa

negociación colectiva de ELA, asegura que "el Gobierno vasco ha perdido una oportunidad de oro para equilibrar las relaciones laborales y hacer algo distinto de lo que marca Madrid", al valorar la creación del órgano que resolverá los procedimientos para la inaplicación de convenios colectivos estatutario en la CAPV, -ORPRICCE-. A pesar de ello, este responsable sindical adelanta que ELA participará en esta comisión, al igual que en la de Madrid, porque "no vamos a regalar la inaplicación de los convenios sin que al menos se nos

Joseba Villarreal, responsable de

-¿Cuál era la postura de ELA en torno a la creación de una comisión vasca de inaplicación de los convenios?

-En su día hicimos llegar al Gobierno vasco una serie de alegaciones en las

comisión en la CAPV por la sencilla razón de que ese capítulo de la reforma laboral y de negociación colectiva está recurrido ante el Tribunal Constitucional. Por ello entendíamos que dar pasos con esa inseguridad jurídica podría dar lugar a situaciones de compleja resolución en el futuro.

También decíamos en nuestras alegaciones que en caso de que el Gobierno vasco decidiera la creación de ese órgano tendríamos muy en cuenta sus reglas de funcionamiento interno en aras de dificultar la inaplicación de los convenios. En primer lugar, en las reglas del juego de la misma, es decir, en la manera de adoptar las decisiones. Y, en segundo lugar, a la hora de establecer límites o introducir dificultades en la documentación a aportar. De endurecer, en definitiva, las condiciones para la inaplicación de los convenios.

"Eusko Jaurlaritzak aukera bikaina galdu du enpresen eta langileen arteko harremanak orekatzeko. Gainera, Rajoyren erreforma onartuz, uko egin dio Lan eta Negoziazio Kolektiboaren Erreformaren aurka dagoela frogatzeari"

-¿Ha tenido el Gobierno vasco en cuenta nuestras alegaciones?

-El Gobierno vasco no ha hecho nada de eso. Por eso decimos que esta comisión es una gran oportunidad perdida, en muchos aspectos.

Ha perdido una oportunidad de oro para equilibrar de alguna manera las relaciones entre empresa y trabajado-

Ha perdido la oportunidad de demostrar que no comparte la reforma laboral y de negociación colectiva aprobada por Rajoy.

También ha perdido la oportunidad de hacer algo diferente a Madrid y realizar un ejercicio de autonomía respecto del Gobierno español.

Por otra parte, ha perdido la oportunidad de posicionarse del lado de los trabajadores y trabajadoras en vez de dar a la patronal el instrumento que han reclamado históricamente.

-En resumen, la valoración de **ELA sobre ORPRICCE no puede ser** más negativa...

-Así es. El Gobierno vasco –al igual que ha hecho en la estatal el Gobierno español- le da a la patronal la llave para que tenga cuantos arbitrajes obligatorios quiera. Si a eso le sumamos que las condiciones de inaplicación de los convenios son las marcadas por Madrid, el resultado es que hay una auténtica autopista para no aplicar los convenios colectivos. La comisión de inaplicación de los convenios es un ataque directo a la negociación colectiva y a la autonomía de las partes.

-Así las cosas, ¿va a participar ELA en esta comisión vasca de inaplicación de los convenios?

- Sí vamos a estar. Por una sencilla razón: ni podemos ni vamos a regalar la inaplicación de los convenios sin que al menos se nos oiga. Estamos ya en la comisión de Madrid y estaremos en la de la CAPV.

QUÉ ES Y CÓMO FUNCIONARÁ **ORPRICCE**

El Consejo de gobierno aprobó el decreto para la creación de la comisión de inaplicación vasca ORPRICCE el pasado 30 de diciembre, y aunque en el momento de cerrar este Astekaria no había sido publicado en el BOPV, es cuestión de días.

ORPRICCE es el órgano que resolverá en la CAPV los procedimientos para la inaplicación en determinadas empresas de convenios colectivos estatutarios. Se crea en aplicación de la reforma laboral promovida desde el Gobierno de Mariano Rajoy, que prevé que "si concurren determinadas causas económicas, técnicas, organizativas o de producción en una empresa pueden no aplicarse las condiciones de trabajo previstas en el convenio colectivo"

Este órgano será un instrumento colegiado, de composición tripartita, en el que participa el Gobierno vasco, las organizaciones sindicales y las empresariales más representativas en el ámbito de Euskadi. Con carácter general, las decisiones se adoptarán por la mayoria absoluta de los miembros con derecho a voto (8 de 15).

Habrá dos tipos de procedimientos:

- 1. Tratar la inaplicación o no en la misma comisión:
- Para que se de esta hipótesis por lo menos un miembro de cada parte tiene que estar de acuerdo.
- La decisión será vinculante.
- 2. Arbitraje obligatorio:

2

■ se nombra un árbitro del PRECO, cuya decisión será vinculante.



2014-I-17



Adolfo Muñoz, secretario general, analiza los últimos acontecimientos políticos sucedidos en Euskal Herria

"EL 11 DE ENERO FUE UNA LECCIÓN DE DEMOCRACIA"



El viernes 10 de enero, poco después de cerrar la edición del *Astekaria* 417, el juez Eloy Velasco decidió prohibir todos los actos organizados por la iniciativa Tantaz Tanta para el 11 de enero en Bilbao. Pocas horas después, representantes de diferentes partidos políticos –PNV, Sortu, Aralar, Eusko Alkartasuna, Alternativa y Geroa Bai– y sindicatos –ELA y LAB– convocaban una manifestación para ese mismo sábado bajo el

lema Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea – Derechos Humanos. Resolución. Paz. Posteriormente otras muchas organizaciones sociales decidieron sumarse a la convocatoria.

-¿Qué valoración haces de la prohibición de los actos convocados por la iniciativa Tantaz Tanta?

-En primer lugar es importante recalcar que ELA compartía plenamente las reivindicaciones en torno a los derechos de las personas presas planteadas por Tantaz Tanta: el fin de la dispersión, la libertad para los presos y presas enfermas y aplicación de la sentencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos.

La decisión de prohibir esta iniciativa solo se puede entender desde la paranoia en la que vive instalada el Partido Popular. Una paranoia que tiene como objetivo condicionar la política vasca e impedir la normalización política en nuestro país, posiblemente porque sueña con que la foto de las ilegalizaciones iba a ser una foto permanente.

Hay que recalcar que el Partido Popular es un obstáculo para la normalización política, para resolver el conflicto vasco y para otras muchas cosas más en el ámbito sindical y social. Pero no solo hay que hablar del Partido Popular. Personas que han hecho mucho para lograr la paz en este pueblo actualmente están en prisión porque así lo quiso Rubalcaba cuando era Ministro del Interior. Por supuesto, me refiero a personas como Arnaldo Otegi, Rafa Díez, Miren Zabaleta... Echamos en falta una pedagogía y credibilidad en las fuerzas políticas en el estado español. Eso permite que el PP compita con posiciones de extrema derecha.

-La manifestación convocada de forma urgente por diferentes partidos políticos y sindicatos en respuesta fue multitudinaria, sin duda, una de las más numerosas de la historia de Euskal Herria.

-El 11 de enero fue un día muy importante para todas esas personas que pedimos derechos humanos, así como un sopapo para el Partido Popular. Fue una lección de democracia a todos aquellos que pretenden el enfrentamiento. En este sentido estamos muy contentos, porque a la decisión de prohibir una manifestación se le ha dado una respuesta como pueblo. En un proceso de involución como el que está inmerso el estado español, además de cerrar las puertas a cualquier normalización política, se está cerrando cualquier vía de acuerdo equilibrado con Madrid. Es legítimo querer acuerdos con Madrid, pero ellos no quieren eso, solo quieren imponer su agenda, una agenda de involución y centralización.

-Ante esta actitud del estado español, ¿qué propone ELA?

-ELA lleva mucho tiempo denunciando que, a día de hoy, España no admite ninguna agenda ni relación de bilateralidad con nadie. El Partido Popular solo está dispuesto a llegar a acuerdos con quienes admiten la sumisión. Eso es así. En este sentido, estamos convencidos y convencidas de que si los abertzales no vamos juntos será imposible abrir ninguna vía que resuelva el conflicto político que vive Euskal Herria. El frente ya existe, es el del PP, y es involucionista.

En esta coyuntura, la suma de fuerzas es la única alternativa que tenemos quienes defendemos el derecho a decidir de nuestro pueblo. En este sentido la manifestación del 11 de enero fue un claro ejemplo de cómo se puede cambiar una agenda de prohibición por una agenda alternativa.

La calle es un elemento imprescindible para movilizar a la sociedad. Esperemos que no hagan falta otros quince años para que nos veamos en las calles juntos.

-Mientras tanto, las personas detenidas en la operación contra el EPPK están en prisión...

-Desde el primer momento, además de denunciar la operación, exigimos la inmediata liberación de las personas detenidas. Con esa operación el Gobierno español pretendió criminalizar la defensa de los derechos de los presos y presas y a cuantas personas trabajan por ellos, además de obstaculizar el proceso de normalización en nuestro país y la labor política de un amplio sector de nuestra sociedad.

Los únicos que no se alegran de los pasos unilaterales que buscan la normalización política en nuestro país son el PP y las organizaciones satélites cercanas a posiciones de extrema derecha.

ELAko Nazio Batzordearen komunikatua azken egunetako gertakarien harira

"ZORIONAK URTARRILAREN 11KO MANIFESTAZIOAREN ARRAKASTA POSIBLE EGIN ZUTENEI"

ELAk une politikoaz egin duen gogoetaren berri eman nahi du, azken egunotako gertakarien ostean (atxiloketak, miaketak, manifestazio deialdi bat debekatu eta larunbatean izan zena)

Lehenik, zorionak eman nahi dizkiegu joan den larunbateko manifestaziora deitu (eta honekin bat egin zuten) antolakundeei, izan ere, erreakzio gaitasun handia erakutsi baitzuten eskubide zibil eta demokratikoen aurkako astakeria baten aurrean (presoen eskubideen alde egun horretarako deituta zeuden ekitaldien debekua). Deialdiak gure gizartean gehiengo handiaren sentipenarekin bat egin du. Zoriondu beharrekoak dira baita ere Euskal

Herrian inoiz izan den manifestaziorik handiena posible egin zuten herritarrak

ELAk berriro egiaztatu du PP Estatuan egiten ari den inboluzioa zein larria den. Alderdi hau eskuin muturrarekin lehian ari da, eta oztopo politiko bihurtu da edozertarako, normalizazio politikorako, gatazka politikoa bideratzeko; gainera, agenda ultraliberala eta zentralista ari da ezartzen gai ekonomiko eta sozialetan.

Euskal Herrian aldebakarreko urrats garrantzitsuak egin dira normalizazio politikoa finkatzeko (etorkizunean are gehiago beharrezkoak izango dira). Aspaldian espero ziren urratsak. Halere, espainiar gobernuak ebidentzia ukatu eta bere aldetik errepresioa zein debekua besterik ez du jartzen; bere ekintzak paranoia baten emaitza dira, izan ere, euskal ordezkaritza politikoaren zati bat legez kanpo zegoen garaien antsiaz baitago.

ELAren iritziz garrantzitsua da ondorio bat: PPren ukapena esparru guztietara hedatzen da, baita Gasteizko gobernuak kudeatzen dituen agenda politikoko gaietara ere. Gure ustez ez dago harreman bilateralik garatzeko aukerarik inposizio gordinaren eragile direnekin. Ez dago aldebiko harremanik, ez bada menpekotasuna onartzen. Espainiako gobernutik datorren eraso maila horrekin normaltasun instituzio-

nala ezin da izan euskal politikaren iparra.

Proiektu politikoen arteko lehia ahalbidetuko duen normalizazio politikoa nahi dugunontzat eta gure herriaren erabakitzeko eskubidearen alde lan egin nahi dugunontzat joan den larunbateko mobilizazioa ez litzateke salbuespena izan beharko; hau hala izatea deialdi honetan parte hartu dugun guztion ardura da. Ikur politiko berrien garaian gaude, eta hauek larunbatean Bilbon egon ginenon artean egindako hausnarketatik etorri behar dute; baita gizartearen parte hartze aktibotik ere: hau gabe ez du etorkizunik izango Madrilekin aurrez-aurre jarri nahi duen proiektu politiko batek ere.

17-I-2014 **3**





Igor Eizagirrek salatzen duenez Espainiako gobernuak protesta soziala isilarazi eta segurtasuna enpresa pribatuen esku utzi nahi du

"SEGURTASUN PUBLIKOA ERE PRIBATIZATU NAHI DUTE"



Espainiako Parlamentuan Herritar Segurtasunari eta Segurtasun Pribatuari buruzko legegaiak aztertzen ari dira. ELA-Gizalaneko idazkari nagusi Igor Eizagirrek azpimarratzen duenez, helburua argia da: gizarteko protesta galaraztea murrizketa sozialak ezartzen jarraitzeko.

-Herritar Segurtasunari eta Segurtasun Pribatuari buruzko legegaia aztergai dago uneotan. Zein irakurketa egiten duzu orain arte iragarri diren neurriez?

-Segurtasun politika eragingarria izan dadin errora jo behar da, delituak eragiten dituzten zergatietara, eta jarduera poliziala kontrol publikoaren pean jarri behar da.

Prestatzen ari diren Segurtasun legeak krisi garaiotan indar handia hartu duten protesta moduak zigortuko ditu; helburua haserrea adierazteko modu horiek ez kaleratzea da. Ez da kasualitatea zigortzen diren jokabideak protesta mota berriak izatea.

Segurtasun pribatuaren legearekin gobernuak segurtasun publikoa ere pribatizatu nahi du. Gobernuak berak aitortzen du legearen xedea polizia eta segurtasun pribatuaren ratioak Europako batez besteko mailarekin parekatzea dela (espainiar estatuan Europan baino polizia gehiago eta segurtasun pribatuko agente gutxiago dago).

-Segurtasuna pribatizatu nahi dutela diozu...

-Bai, hala da. Hezkuntza, osasungintza edo beste hainbat kontu bezala pribatizatu nahi dituzte. Esparru honetan eztabaida bestelakoa izan beharko litzateke: jarduera polizialaren gaineko kontrol soziala nola areagotu, baina PPk beste zerbait nahi du: segurtasuna pribatizatu eta beraren gaineko kontrol publikoa izatez ezabatu.

Zentzu honetan, gainera, oso kontutan hartu behar da segurtasun enpresa handiak noren esku dauden, eta saltoki handiek eragiten duten presioa, lapurreta txikiei aurre egiteko asmotan.

-Zein ondorio izan litzake iragarri dituzten neurriak aurrera aterako balira? -Etorkizun iluna ikusten diegu gizaeskubideei eta kalitate demokratikoari dagokionez. Uste dugu helburu argia dutela, gizarteko protesta galaraztea murrizketa sozialak ezartzen jarraitzeko, eta horrekin desberdintasuna areagotzeko. Horregatik, espainiar kongresuan eta senatuan ordezkaritza duten euskal alderdiei dei egiten diegu lege hauen aurkako jarrera ager dezaten.

Gainera, ezin dugu ahaztu bermeak dituzten lanpostuak suntsituko liratekeela, horiek enplegu prekarioz ordez-

Hau guztiagatik, EAEko eta Nafarroako gobernuei eta Hego Euskal Herriko udalei eskatuko diegu lege hauek ez ditzatela aplikatu. Administrazioek legeak diskrezioz aplikatzeko ematen duen aukeraz baliatu beharko lirateke arau-hauste berriak ez zigortzeko eta segurtasun publikoaren pribatizazioa saihesteko. Euskal administrazioek ezin dituzte onartu beren jarduera esparruan kanpotik ezarritako aginduak. Guk zera eskatzen diegu, saia daitezela bermatzen polizien eginkizun nagusia, –segurtasun publikoa gizartearen mesedetan izatea—.

"El Parlamento español está tratando sendos proyectos de ley relativos a la Seguridad Ciudadana y a la Seguridad Privada. Estas leyes tienen una intencionalidad muy clara: eliminar la protesta social para facilitar la aplicación de recortes sociales y el aumento de las desigualdades sociales. Para ello el Gobierno español pretende, entre otras medidas, privatizar la seguridad pública, dejando un horizonte muy preocupante desde el punto de vista del ejercicio de los derechos humanos y la calidad democrática"

• Declarados nulos los 18 despidos de Berra

Poco antes del cierre de este *Astekaria* se supo que el Juzgado de lo Social de Donostia ha declarado nulo el despido de 18 trabajadoras de la Residencia Berra (Donostia). La sentencia, así mismo, obliga a la empresa a la inmediata readmisión de esas trabajadoras. El próximo *Astekaria* informaremos con más detenimiento de esta magnífica noticia

Jarraipen zabala eskola garraioko begiraleen greban

Ordezkaritza duten sindikatuek deituta –ELA, LAB, CCOO eta UGT– urtarrilak 13 eta 14 greba egunak izan ziren EAEko eskola garraioko begiraleen sektorean. Euren lan-baldintzak duinduko dituen hitzarmen bat lortzea helburu duen deialdi honek jarraipen oso zabala izan zuen, batez ere Bizkaian –herrialde honetan babesa %90ekoa izan zen–. Urtarrilak 20, 21 eta 22 ere greba egunak izango dira sektorean.

Movilizaciones en las Residencias de Bizkaia

Ante el inmovilismo patronal, ELA ha decidido intensificar las movilizaciones que viene realizando en el sector de las Residencias de Bizkaia. De este modo nuestro sindicato ha convocado cuatro jornadas de huelga en febrero –los días 6, 7, 27 y 28-. ELA valora muy positivamente las movilizaciones realizadas hasta ahora. Por ejemplo, el éxito de la última jornada de huelga supuso que, por fin, la patronal realizara unos movimientos que le aleja de sus posiciones más radicales. De todas formas, esos movimientos son claramente insuficientes, por lo que ELA intensificará sus movilizaciones.

MobilizazioakGEBISAn

GEBISAko –A8 autobideko Bizkaiko zatiaren kudeaketa daraman enpresa– langileek euren mobilizazioekin jarraitzen dute, lanpostuen defentsan. Langileek salatzen dutenez enpresak lanpostuak suntsitu nahi ditu; horregatik urtarrilaren 17an bilkura egin zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean.

www.ela-sindikatua.org / @ELAsindikatua / ELA-Facebook



Barrainkua 13, Bilbao Tel. 94 403 77 00 Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado nº 08/207